

GUSTATZEN ZAIT – EZ ZAIT GUSTATZEN

1.- Deskribapena

Esaldi batzuk irakurri eta gustatzen zaizkigun ala ez erabakitzean datza.

2.- Helburuak

- Gure sentimenduak ezagutzen eta hitzez adierazten ikastea.
- EZETZ esaten eta laguntza eskatzen ikastea.

3.- Partaideak

5 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Haur bakoitzarentzat, aurpegi triste bat eta aurpegi alai bat azaltzen den txartel bana.

Esaldien txartelak.

5.- Abiapuntuko arauak

Aurpegi triste bat eta aurpegi alai bat erakusten duten txartel batzuk prestatuko dira.

6.- Garapena

Esaldi bat ozen irakurriko da, eta haur bakoitzak sentitzen duena hobekien adierazten duen txartela aukeratuko du (gustatzen zait/ez zait gustatzen).

7.- Ebaluazioa

Esaldiak gustatu al zaizkizue? Zeintzuk ez zaizkizue gustatu? Zer egin dezakegu zerbait gustatzen ez zaigunean? Norekin hitz egin dezakegu? Nork lagundu gaitzake?

OHARRAK:

Ez da beharrezkoa haurrei erantzunen arrazoiak emateko eskatzea. Hobe da beren kabuz azalpenak ematea. Jolas honi esker, haurrak gustatzen zaizkien eta gustatzen ez zaizkien gauzak daudela konturatuko dira, eta sentimendu horiek norbaiti adieraztea ongi dagoela ikusiko dute (batzuetan, horrek egoera aldatzen ere lagundu dezake).

Garrantzitsua da gure sentimenduak ezagutzea, haiei buruz hitz egitea eta haiei aurre egiten jakitea. Ongi dago beste norbaiti esatea berarekin gauzak egitea gustatzen zaizula, zurekin jolasten denean edo muxu bat ematen dizunean pozik sentitzen zarela, baina hori bezain garrantzitsua da EZETZ esaten jakitea; ez duzula nahi bestea zure jostailuekin ibiltzerik, ez duzula nahi bere muxurik... Horrez gain, garrantzitsua da arazo bat duzunean laguntza bila norengana jo dezakezun jakitea.

Bestalde, kontuan hartu behar da guri asko gustatzen zaigun zerbait besteei ez zaiela zertan gustatu behar.

Ariketa honen bidez haurrek izan ditzaketen arazoak azalera daitezke.

8.- Iturria

www.sterm.org/Ensenanza/Mujer/tutoria.doc -

ERANSKINA
ESALDIAK:

- Aiton-amonekin parkera joatea.
- Beste lagun batek bultza egitea.
- Lagun batek opari bat egitea.
- Amarekin zinera joatea.
- Lagun batek musu bat ematea.
- Norbaitek nire gona altxatzea.
- Andereñoak egin ez dudan zerbaitengatik errieta egitea.
- Aitarekin supermerkatu joatea.
- Norbaitek musu bat ematea nahi ez dudanean.
- Norbaitek baimenik gabe nire jostailu bat hartzea.